

bilbao **museoa**

BBKateak **Zurbarán – Baquedano**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Zurbarán – Baquedano

11. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Still Life

“Natura hila” (bizitza geldiarazia) arteak objektuen, landareen edo animalia bizigabeen irudiak definitzeko erabiltzen duen terminoa da. Beraz, gauzen ezaugarri materialak irudikatzeko lan onaren generoa da: jangela bateko mahaia mihise zuriko mahai-zapia doi-doi baxerak etenda duela, edo fruta-plater baten distira. Hala ere, beharbada, Baquedano eta Zurbarán existentziaren errealismo hutsalaz mintzatuko zaizkigu, modu erlijiosoan.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua



Francisco de Zurbarán

1598-1664

Margolari ibilbidea Sevillan garatu zuen batez ere, eta bertan tailer bat antolatu zuen jasotako eszena erlijiosoen eskaera zabalari erantzuteko, komentuek eta partikularrek eskatzen baitzizkioten, baita Ameriketatik ere. 1634an Madrilera bidaiatu zuen, ziur aski Velázquezek gonbidatuta, Buen Retiro jauregia dekoratzeko lanak egitera. Erregel-bildumak eta hiriburuko beste artista garaikide batzuk eskura izateak estilo propioa eratzeko aukera eman zion, debozio-grinetan eta mirari-agerkizunetan soiltasuna eta egunerokotasuna zeriela. Handik itzultakoan, Jerezko Cartujako eta Guadalupeko Monasterioko serie handiak egin zituen. Murilloren ospeak itzalarazita, Madrilen hil zen, behartsu ia.



Alexandriako Santa Katalina

c. 1650-1660. Olioa mihisean

XVII. mendean, ohikoa zen gizarteko goi mailako sevillar dama aberatsak beren izeneko santu edo martiri gisa pertsonifikatuta agertzea erretratuetan. Honako honetan, Alexandriako Santa Katalinari burua mozteko erabilitako ezpata eta martiritzaren palma dira koadroko gaztearen alter egoa identifikatzeko bide ematen duten ezaugarriak; hiperrealismotik hurbileko moldean irudikatutako apaingarri eta oihal aberatsez jantzita dago, erretratua egin zioten garaiko modaren arabera. Zurbaránek arrakasta itzela lortu zuen itxura profanoko “jainkozko erretratu” hauekin, non ageri baitira irudiak hondo neutro batean margotuta..

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 1919an



Ama Birjina Jesus Haurrarekin eta San Joan Bataiatzailea, haurra

1662. Olioa mihisean

Ikus-amarruz beheko aldean 1662ko data erakusten duen mihise hau Zurbaránen lanik berantiarrena da, ezagutzen denaren arabera. Gainera, ordurako zahartutako maisuak osorik eskuz egindako pintura da. Ama Birjinaren eta Haurraren fisionomiak ohikoak ziren egilearen ekoizpenaren etapa hartan, modelatze leunagoarekin. Peltre edo zilarrezko plater baten gaineko bodegoi zoragarria egia harrigarriko adibidea da. Artistaren azkenaldi emankorreneko lanik ederrenetakoa da.

1940an eskuratua

Isabel Baquedano

1936-2018

Zaragozako Arte eta Lanbide Eskolan eta Madrilgo San Fernando Akademian ikasita, 1957tik 1988ra Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan aritu zen irakasle. Haren langintzan, badira quattrocentoko margolarien erreferentziak, Piero della Francesca, esaterako, baina baita Edward Hopper bezalako garaikideak ere. Postkubismoa, informalismoa, figurazio berria, espresionismoa, errealismo soziala edo pop artea ageri dira haren lanean, Espainiako testuingurukoak, betiere bere estilo pertsonalaren bahean iragazita, soiltasun materiala eta kontzeptuala ardatz duela. Margolanetan nagusi dira eguneroko eszenak, bodegoiak, Bibliako kontuak, tradizio klasikoetik hartutakoak eta zirkuko irudiak.



Mahaia

1979. Olioa mihisean

Heldutasun artistikoko unean sorturik, natura hil honen abiapuntua Huescako Canfranceko Hotel Internationaleko jantokiko argazki bat da, egileak urtebete lehenago ateratakoa, eta bertan zerbitzurako prestatutako mahaia ikusten dira, ezpainzapiak punta gorantz dutela edalontzietan jarrita. Argazkietan agertzen den espazio guztia pintura bihurtzen duen lehen mihise bat egin ondoren, Baquedano azken sintesira iritsi zen errealismo existentziaz blai dagoen sinbolismo handiko lan honekin.

1983an eskuratua



Cea Bermúdezko gela

2006. Akrilikoa eta ikatz-ziria mihisean

Giza presentziarik gabeko barnealde honetan, hala ere, hiru sofako multzo batek soilik osatzen duen altzari sorta bizigabeak jendea bizi den espazio bat iradokitzen du. Artistak giro etereo horretan islatzen du eguneroko bakardadea erakusteko interesa, Edward Hopperren pintura existentsialistarekin zuzenean lotzen duen joera. Baquedanok artelan hau egin zuen ibilbideko unean, artistak baliabide estilistikoak eta adierazkorrak arazte maila goren-gorenekora eramatea lortu zuen.

Mayte Baquedano Elvira andrearen dohaintza 2020an



Ama Birjina eta Umea

c. 2010. Akrilikoa eta ikatz-ziria mihisean

Eszena Cea Bermúdezko etxeko gela berean kokatuta dago; gela horretako beste mihise batean agertzen da. Besaulkiekin dekoratuta dagoen espazio garaikide batean, Ama Birjina Haurrarekin margolan bat kokatuta dago, estilo-aulki batean eserita. Egileak gai horri buruz egin zituen irudikapen ugarien adibide bat da; Itun Zaharreko eta Berriko gaiekin osatutako ziklo luze bati dagozkio. Sintesi bat gauzatu da hor, batera bilduta artistak pintura quattrocentistarekiko zeukan interesa, bere erlijiotasun sakona, ekoizpeneko une hartan lortutako soiltasun formala eta zehaztasun teknikoak.

Mayte Baquedano Elvira andrearen dohaintza 2020an

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.